

BESTELAKO XEDAPENAK

LAN ETA ENPLEGU SAILA

2038

EBAZPENA, 2024ko apirilaren 18koa, Laneko eta Gizarte Segurantzako zuzendariarena, zeinaren bidez argitara ematen baita Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enpleguko sailburuaren 2022ko ekainaren 14ko Aginduan adierazitako laguntzak jasoko dituzten entitateen zerrenda. Agindu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoan ordezkari duten erakunde sindikalei dirulaguntzak ematea arautzen da.

Bat etorri Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 26.2 artikuluan ezarritako betebeharrarekin, zeina lege horren arabera emandako dirulaguntzen publikotasun-printzipioaren ondorio baita.

EBAZTEN DUT:

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea 2022ko ekainaren 14ko Aginduaren babesean emandako dirulaguntzak jasoko dituzten entitateen zerrenda, entitate onuradunaren izena eta emandako dirulaguntzaren zenbatekoa adierazita, ebazpen honen eranskinean ageri den moduan.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko apirilaren 18a.

Laneko eta Gizarte Segurantzako zuzendaria,
ANGEL LAPUENTE MONTORO.

2024ko apirilaren 30a, asteartea

ERANSKINA

Sindikatura	Dirulaguntza (eurotan)
ELA	449.727
LAB	218.088
CCOO	205.397
UGT	116.126
LSB-USO	19.497
ESK	15.696
STEE-EILAS	12.692
CGT	6.499
CSI-CSIF	3.433
FASGA	2.023
SATSE	1.839
USAE	1.410
Confederación de Cuadros	1.104
ERNE	920
Hitza	552
CUT	307
Bazkuna	307
ESAN	61